

HAZINNOVA

Zure
ETEarentzako
berrikuntza
aukera

innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

GRUPO
spri
TALDEA

EUSKO JAURIARITZA
GOBIERNO VASCO
EUSKAL GOBIERNUA
GOVERNMENT OF BASQUE COUNTRY
GOVERNMENT OF THE BASQUE COUNTRY

www.spri.eus

¿Zer da HAZINNOVA?

HAZINNOVA izeneko laguntza-aukeraren barruan, negozio-prozesu zein produktu arloko berrikuntza mikroproiektuak inplementatzeko aholkularitza eta bide-laguntza eskaintzen da.

- ✓ **KUDEAKETA** berrikuntza
- ✓ Arloko berrikuntza **MERKATURATZE**
- ✓ **PRODUKTU** berrikuntza


HAZINNOVA lagungarria izan daiteke honako helburuak lortzeko:

- Zure enpresaren **EFIZIENTZIA** hobetzea.
- Zure prozesuen **ERRENTAGARRITASUNA** hobetzea.
- **GASTU** edo entrega-**EPEAK** murriztea.
- Zure erakundeko pertsonak **MOTIBATZEA**.
- **MERKATU-KUOTA** handitzea.
- **BEZERO-SEGMENTU BERRIETARA** gerturatzea.
- **JABETZA INDUSTRIALA** babestea.
- Produktu edo zerbitzu berriak **DISEINATZEA**.
- Zure beharrian teknologikoak **DEFINITZEA**.

HAZINNOVAREN helburuak ez dira honakoak:



Zer eskaintzen dizu HAZINNOVAK?



Zein ETE motari zuzentzen zaio HAZINNOVA*?

* Ekimenean ezin izango dute parte hartu 2018, 2019 edo 2020an Innobideak eta Hazitek programen onuradun izandakoak, salbuespen honekin: soilik Innobideak Kudeaketa Contraste edota Innobideak -Kudeabide 2. Faseko onuradun izandakoak.

- ✓ **10** langile edo gehiagoko
- ✓ Kokapena: **Euskadi**
- ✓ Sektoreak:
 - industria**
Manufaktrazio industria, erauzketa industriak, energia hornikuntza, ur eta hondakinen kudeaketa.
 - zerbitzuak**
Industriarekin lotutako zerbitzuak, IKT jarduerak, handizkako merkataritza, garraioa, biltegiatzea, finantza-jarduerak, aseguruak.

Zein urrats eman behar dira?



HAZINNOVA proiektu motak

ETEEK mota ezberdinetako 2 mikroproiektu egin ahal izango dituzte, gehienez.




Ekonomiko-finantzarioa

Enpresaren kudeaketa ekonomiko-finantzario eta estrategikoa hobetzea, errentagarritasuna kontrolatzeko.

Adibideak*:

- Adierazleak aztertu / aginte-koadro bat sortzea erabakiak hartzeko prozesua hobetzeko asmoz.
- Enpresaren errentagarritasuna eta kostuen kontrola hobetzea.
- Enpresaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzea.
- Enpresetan kostuen analisisa egitea.
- Kostuen eta tarifen inputazioa errebasatzea.
- Zorraren birfinantzaketa eta likidezia handitzea.
- Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta estrategikoa nabarmen hobetzeko aukera ematen duten konponbide teknologiko berrien bideragarritasun eta beharizana aztertzea.



Produkzioa

Produkzio prozesuak hobetzea, enpresaren produktibitatea, kalitatea, iraunkortasuna edo segurtasuna handitzeko.

Adibideak*:

- Enpresan produkzio prozesua optimizatu eta hobetzea (layout).
- 5S metodologia ezartzea.
- Enpresaren produkzio kostuen azterketa eta errebisioa egitea.
- Enpresaren produktibitatea hobetzea.
- Lantegiko produkzioaren plangintza hobetzea.
- WIP inplementatzea.
- Lean manufacturing pilotu bat ezartzea.
- TPM sistema ezartzea.
- Konponbide teknologiko berrien inguruko bideragarritasun eta beharizanak aztertzea, produkzio prozesuak eta kudeaketa hobetzeko.
- Produkzioaren ingurumen eta energia arloko eragin eta kostuak nabarmen murrizteko hobekuntzak aplikatzea (ekoproduktibitatea).
- Aukerak identifikatu eta produktuen berranufacturinga testatzea.




Logistika

Hornikuntza- edo banaketa-katea hobetzea, entrega-epeak murriztu eta bezeroei zuzendutako zerbitzua hobetzeko.

Adibideak*:

- Biltegiaren kudeaketaren eraginkortasuna eta optimizazioa.
- Logistika prozesuaren eraginkortasuna aztertu eta hobetzea.
- Izakinen kudeaketa hobetzea.
- Horniketa edo banaketa katea berriz diseinatzea.
- Ibilbide logistikoak optimizatzea.
- Eskara aurreikuspenak burutzeko metodologia bat ezartzea.
- Logistikaren kudeaketa hobetzeko konponbide berrien beharizana eta bideragarritasuna aztertzea.
- Biltegiaren kudeaketaren edo logistikaren ingurumen arloko eraginak edo kostuak nabarmen murrizteko moduko hobekuntzak ezartzea.
- Produktuak biltzeko diseinua hobetzea.




Barneko administrazio prozedurak

Administrazio prozedurak berriz diseinatzea (eskaera, kobrantza eta ordaintzen kudeaketa, dokumentazioaren kudeaketa, bezeroen inguruko kudeaketa administratiboa, erreklamazioak, berantortasuna...), enpresaren eraginkortasuna hobetze aldera.

Adibideak*:

- Enpresaren barneko administrazio prozedurak errebasatu eta hobetzea.
- Laneko proiektuak kudeatzeko eredu berriak ezartzea.
- Kudeaketa administratiboa automatizatu eta hobetzeko konponbide teknologiko berrien beharizana eta bideragarritasuna aztertzea.
- Ingurumen arloko iraunkortasuna eta errentagarritasuna hobetzeko erorketa prozedura lantzea.



Pertsonak

Pertsonen kudeaketa nabarmen hobetzea, beren konpromiso eta motibazioa handitzeko.

Adibideak*:

- Enpresako langileen motibazioa eta inplikazioa handitzea.
- Langileen arteko giroa hobetzea.
- Taldeko pertsonen arteko komunikazioa hobetzea.
- Lanpostu bakoitzaren funtzio eta erantzukizunen definizioa eta diseinua.
- Taldearen produktibitatea hobetzea.
- Profil eta lanpostu berriak definitzea.
- Une bakoitzean dagoen lana tele-lanaren arabera edo aurrez aurreko eta urruneko lana uztartzen dituen ereduaren arabera egokitzea.



Bezeroak

Bezeroen inguruko ezagutza, kaptazioa, arreta eta fidelizazioa hobetzea, merkatu-kuota handitzeko.

Adibideak*:

- Bezero berriak identifikatu eta erakartzea.
- Produktuen merkaturatzea hobetzea.
- Promozio bide eta bezeroengana heltzeko modu berriak aztertzea.
- Bezeroen fidelizazioa.
- Markaren posizionamendua hobetzea.
- Bezeroen segmentazioa egitea.
- Bezero-zorroaren dibertsifikazioa.
- Bezero berriekin, berankorrekin, eta abar jarduteko protokolo berriak sortzea.
- Bezeroen inguruko ezagutza, kaptazio, arreta edota fidelizazioa hobetzeko IKT konponbide berrien inguruko bideragarritasun eta beharizana azterketak.
- Online salmentarako estrategia garatzea eta online marketin eta e-commerce ildoak sustatzea.
- Marka berdearen bidez posizionamendua hobetzea (ingurumen arloko etiketak, eta abar).



Merkatu berriak

Produktu eta zerbitzuak (berriak edo badaudenak) merkatu berrietara egokitzea (nazionalak, nazioartekoak edota sektore berriak), edo enpresaren marketina egokitzea, merkatu geografiko edo bezero segmentu berrietara zabaltzeko.

Adibideak*:

- Produktu bat edo batzuk merkatu berri batean barneratzeko edo dibertsifikatzeko aukerak aztertzea.
- Produktu bat edo produktu sorta berri bat merkaturatzeari buruzko analisisa.
- Merkatu berrietan sartzeko marketin estrategiak egokitu edo aplikatzea.
- Produktuek merkatuan eduki dezaketen harreraren inguruan kontsumitzailearekin kontrastatzea.
- Online salmentarako estrategia garatu eta e-commerce ildoak sustatzea.
- Jarduera sektore berrietara zabaltzea.
- Produktuaren kontzeptua definitzea, gerora prototipoa egiteko.
- Merkatu berrietako konponbide berdeen eskaera aztertzea, posizionamendu berdearen bidez sartzeko.
- Marketina merkatu berrietara egokitzeke IKT konponbide berrien beharizana eta bideragarritasuna aztertzea.



Produktua

Produktu mailako konponbideak identifikatu eta ezartzea, negozio-bolumena handitzeko aukera izateko.

Adibideak*:

Dauden zerbitzu eta produktuak nabarmen hobetzea

- Produktua aztertu eta langile, bezero eta abarren inguruan izan ditzakeen hobekuntzak identifikatzea.
- Produktu eta zerbitzuen zorroa aztertzea.
- Identifikatutako hobekuntzen ikusgarritasuna aztertzea.
- Produktua hobetzeko beharizana teknologikoak definitzea.

Produktu eta zerbitzu berrien diseinua

- Merkatuaren eskaerak aztertzea (bezeroen beharizanak, legeria, iraunkortasuna...).
- Produktu berri potentzialen ideia eta kontzeptualizazioa.
- Bezero potentzialekin produktu edo prototipo ideiak lantzea.
- Produktu berrien garapenerako beharizana teknologikoak definitzea.
- Trantsizio posibleak aztertu eta definitzea: ondasunen salmenta, zerbitzuen eskaintza... (serbituzioa).
- Produktuaren garapenerako prozesua hobetzea metodologia berrien bidez (Agile, MVP, eta abar).

Jabetza intelektualaren kudeaketa

- Egindako inbentsioak nazioarte mailan errentagarri egiteko (EPO eta PCT patenteak eta marka komertzialak eta europar diseinu industrialak) kudeaketa patente, marka komertzial eta diseinu industrialei dagokienez.

*Katalogo honetan azaldutako adibideak orientagarriak baino ez dira.

Proiektu tipologia eta horien helmena HAZINNOVA 2021 laguntza-programaren oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera izango da.